

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 12a / 504. zenbakia

BETI-BUSTI BIKAIN ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Markel Agirre
txapeldun
eta Iraitz Artola
hirugarren



EHNA: LASTER BERGARAN/6 • KONTZERTUA: TXERNOBILGO UMEEN ALDE GAUR MARIAREN LAGUNDIAN/12



Zure sukaldea.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

1.500 sinadura bildu ditugu. Zuei esker,

EHNA



badator!

LASTER **BERGARAN** TRAMITATZEKO AUKERA



ATREBENTZIAEZPADA/ Juten zara udalekuetara? Eta ze moduz pasatzen dozu?



JON ZABALA
8 urte



MIKEL KORTABARRIA
7 urte



RAISA MANIEGA
12 urte



IRATI ALBERDI
12 urte



JULEN MURUAMENDIARAZ
8 urte



IGOITZ RETES
9 urte

Ondiokan ez naiz behinbe-
jun. Igoal jungo naiz beste
urte baten. Lagunekin urte-
tzen naiz eta jolastu egitten
dogu, patinetian ibiltzen
gara eta beste gauza batzuk
be egitten dittugu.

Ni ez naiz juten udalekue-
tara; bederlatzi urte dauz-
kadanian jungo naiz. Opo-
rretan jolastu egitten dot
lagunekin Seiminarixuan,
eta eguraldi ona egitten
badau, igerilekuetan.

Aurten ez naiz jungo, bai-
ña jun zan urtian Zuazara
jun nitzan. Oso ondo pasau
neban. Bergaran egoten die-
netara ez naiz behin be jun.
Lagunekin ibiltzen naiz;
mendira-eta juten gara.

Ni hemen, Bergaran, egi-
tten dien udalekuetara jun
izan naiz aurreko urtietan.
Aurten ez, izena emateko
orduan berandu ibilli nitza-
lako. Baiña oso ondo pasa-
tzen neban.

Hemen, Bergaran, goizetan
juten naiz ni udalekuetara.
Beste urte batzuetan be jun
izan naiz. Oso ondo ibil-
tzen gara, gainera. Herri
kirolak eta beste jolas
batzuk egitten dittugu.

Goizetan juten naiz udale-
kuetara. Oso ondo ibiltzen
gara. Jolastu egitten dogu,
eta eskulanak be egitten
dittugu. Aurreko urtietan
be jun izan naiz uztailian,
goizetan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OINEZKOAK ERE ARDURATSU Oinezkoek ere arduratsu
izan behar dugula diosku irakusle batek. Irizar kaletik behera goa-
zela, Santa Marinako zubi aldera hartzeko; bidea gurutzatu beharra
daukagu. Bidegurutzean bertan ez dago zebrabiderik, baina hortik
igarotzeko ohitura handia dugu askok. Kexatu den irakurlea kotxez
zihuan oinezko batekin ezusteko txikia izan ei zuen. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /10

KULTURA /12

Gaztetxearen proiektua

Udalak osoko
bilkuran onartu
du gaztetxe
proiektua. Baita
lanak esleitzeko
balidintzak ere.

Beti-Bustikoak, bikain

Markel Agirre eta
Iraitz Artola Beti-
Bustiko piraguis-
tak podiumera igo
ziren Espainiako
Txapelketan.

Bigarren jazz emanaldia

Gaur, egubakoi-
tza, Malcolm
Scarpa&The
Hokum Ladies
taldea Espoioian,
22:30ean.

IRAKURLEAKMINTZO

ESKERRIK ASKO ALCER ELKARTEAREN IZENEAN

Bergarako transplantatu eta
dialisi gaixoen izenean,
eskerrak eman nahi diz-
kizue ALCER elkarteak orga-
noak emateko kanpainan inte-
resa erakutsi duzuen guztioi; bai-
ta organo emaile berriei ere.

Kalean jarri genuen mahai
informatiboan 39 lagunek bete
zituzten emaile izateko orriak.

Organo emaile izatea eraba-
kiz gero, izena emateko orriak
herriko farmazietan daude.

ALCER ELKARTEA

BESTEKEESANA

**“ Barregarri eta
komikoaren artean
banaketa handia
egiten dugu. Ez dut
uste barregarria
naizenik, jaio naizen leinua batez
ere epikoa eta tragikoa delako. (...) Pailazo batzuk barrea baino irribea-
rrea, samurtasuna edo nostalgia
eragiten dute. Ez nago prest edoze-
in gauzaren gainean barre egiteko.
Oinarritzkoena da nork bere buruz
barre egitea, eta gure kulturean,
egiten den umorearen zati handi ba-
tek giza sakrifizioa behar du: beste
den hori, tentela, elbarritua, moz-
kortia, sufritzen duen jendea. Umore
mota horren aurka nago errotik. Gi-
za sakrifizio bat aukeratu beharko
balitz, pailazoarena behar luke izan.**

VIRGINIA IMAZ
‘El Diario Vasco’/02-07-03

BERAIEKDIÑO/ Elena Laka



Zilborrari begira

Egunkariak irakurrita,
ikusten dut nire
gaurko iritzi hau haien
haritik joan beharko
litzatekeela: aurtengo San
Ferminetako entzierrero luzeak,
Euskal Herriko herrialde
abertzaleen gehien irakur-
tzen den egunkariak Ibarretxe-
ren gobernuari
emandako astindua
autogobernuaren
eta transferentzien
gaian egin duen
hordagoa dela-eta,
Manu Chaoren
kontzertua, HIESari
buruzko konferen-
tzia, Bushen herriko
auditoreen sorkun-
tzazko kontabilita-
tea... Baina ez nago horien
inguruko komentariarik
egiteko, ni nire zilborrari
begira nago, eta benetan,
gainerakoak, bost axola.

Inguruan ere entzuten ditut
bestelako gaiak, hemen komen-
tatzeko modukoak liratekeenak:
udazkendu zaigun uda,
Tourra, oporretako planak,
lanak bukatzeak sortzen duen
estresa... Baina gai guzti horiek
ere interes txikia sortzen
didate, nire lanak bukatzea ez

bada, ez ditut hemen komenta-
tzeko modukoak, ni zilborrari
begira nago.

Bitartean zilborra hasiz
doa, mugituz, zabalduz; bizitza
propioa du, ez dio aginduei
kasu egiten, gorputzeko
gainerako atalek ez duten
autonomia du. Eta ni begira
nauka, zain, txunditu-
ta, harrিতuta, emozionatuta. Eta
beren zilborrari
baino begiratzen ez
dioten beste askoren
kasuan ez bezala,
iritsiko da eguna,
gertuko eguna,
zilborrak eten
gingo duena eta
bizitzaren miraririk

zaharrena, normalena eta
harrigarriena gertatuko dena.
Gero, udako etenaldiaren
ondoren, bizitzaren aktualitate-
ak jarraitu egingo du, egunka-
riek notizia garrantzitsuak
ekarriko dituzte eta inguruko
jendeak beretzako inportanteak
diren gaiez hitz egiten segituko
du. Orduan ni, beste asko ez
bezala, ez naiz zilborrari begira
egongo, gure umorearen aurpe-
giari baizik. Umea mundu eta
mundua ume bihurtuko zaizkit.

**“Ez nago egungo
gaien gaineko
komentariarik
egiteko, ni nire
zilborrari begira
nago; eta beste
guztiak, bost”**

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorberetzar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 13**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 14**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 15**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 16**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 17**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 18**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Ambulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Dolorea 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldedia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| Santa Marina
Domekak:
11:30, 13:00,
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15. | Domekak: 10:30.
Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak:
20:00. |
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:00. | Angiozar
Domekak:
11:30,
Moja
Zaharrak
Lanegunak: 9:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30. | Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Ubera
Domekak:
10:30. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

ARANTZAZURA ERROMESALDIA UZTAILAREN 25EAN

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Arantzazuko eta Loiolako santutegiak bisitatzeko irteera izango da uztailaren 25ean. Irteera 09:30ean egingo dute Bergaratik, autobus geltokitik. Erromesaldia denez, ibilbidearen zati bat oinez egiteko aukera egongo da. Arantzazun, 11:00etan, penitentsia komunitarioa egingo dute, basilikako kriptan; eta 12:00etan, Meza Nagusia, basilikan; bazkaria 14:00etan izango da, Hospederian; 16:15ean, bideo emanaldia izango da; 17:00etan, Ama Birjinari agurra; eta 17:30ean, autobusak irtengo dira Loiolarantz, eta Bergaran geldialdia egingo dute. Loiolatik itzulera 20:00etan izango da. Autobus txartelak (5,50 euro) eta bazkari txartelak (13 euro) San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon edo Barrenkaleko Zatoian.

MENDI IRTEERA KANTABRIARA HILAREN 21EAN

Pol-Pol Mendizale Taldeko gazteek Castrovalnerara (Kantabria) irteera antolatu dute uztailaren 21ean, egun osorako. Irteera 07:00etan izango da, frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan.

JARDUNENAGENDA

JARDUN ELKARTEAK BEGIRALEAK BEHAR DITU

Jardunek 2002-03 ikasturtean aisialdi proiektuak aurrera eramateko begiraleak behar ditu. Interesatuek curriculumak bidal dezakete 103 posta-kutxatilara. Argibide gehiago, Jardunek Errotalden duen bulegoan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 zenbakietan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Bergarako 29 pintoreren lanak Italian ikusgai

Bergarako eta Ortonovoko artisten arteko hartu-emanak bultzatzeko, Bergarako 29 pintoreren lanak ikusgai izan ziren Ortonovon 92ko udan. Ortonovo kostaldean dago, Genoatik 200 bat kilometrora. Gallastegi alkatea eta beste hainbat udal ordezkari joan ziren hara.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Galosua”

Dotorea, kolore eta itxura onekoa.
- Erropia oso maixa, maiza zeukan arek.
Eskaxa zeukala. Zarra ero, beintzet ez galoso galosua.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMO Egubakoitza, 5	7°C
MAXIMO Domeka, 7	27°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	18,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	24 °C	10 °C	2,8 l/m²
Eguena, 4	20 °C	14 °C	- l/m²
Egubakoitza, 5	24 °C	7 °C	2,5 l/m²
Zapatua, 6	18 °C	14 °C	0,2 l/m²
Domeka, 7	27 °C	8 °C	- l/m²
Astelehena, 8	18 °C	16 °C	1,4 l/m²
Martitzena, 9	23 °C	14 °C	11,3 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘SPIDER-MAN’

ZUZENDARIA: SAM RAIMI. AKTOREAK: TOBEY MAGUIRE, WILLEM DAFOE, KIRSTEN DUNST.

HARIA. Peter Parker gazteari genetikoki manipulatuak arma bategenak egongo dio eta superhero bihurtuko da, arma baten ahalmenak garatuko ditu-eta.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean; eta martitzenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

SANTA MARINA/ Paretetako margolan gehienak kendu egin dituzte eta sakristau etxearen horma konpontzeko lanei ere ekin diete

Hasi dira Santa Marina parrokia berritzeko lanak, eta 22an itxi egingo dute

MONIKA BELASTEGI

Dagoeneko hasi dira Santa Marina parrokia zaharberritzeko lanak, nahiz eta zeregin mardulenak irailaren 1etik aurrera egingo dituzten. Oraingo, elizako margolanak kendu egin dituzte eta kanpoko aldetik ere hasi dira sakristau etxeko pareta garbitzen.

Oraingo, hiru dira egindako lanak: batetik, eliza barruko margolanak kendu eta ondo gorde; bestetik, sakristau etxeko kanpoko pareta garbitzen hasi; eta, azkenik, erreka aldera ematen duen parrokiaren paretatik huntuza kendu.

Joan den astearen amaiera aldera eta aste honetan barrena egin dituzte lan horiek. Sakristau etxeko pareta konpontzeko, aterpe txikia bota egin dute, lana hobeto egin ahal izateko. Bestalde, huntzari dagokionez, erreka aldera ematen duen paretan zegoen, eta lehenbailehen kentzea komeni zen, gainera, sustraiak paretan barrena sartuta zituela, parrokiako erretaula nagusia kaltetzeko arriskuarekin.

Zaharberritzeko lanen hurrengo urratsarako itxi egingo dute parrokia. Uztailaren 22an izango da hori, eta hurrengo egunean, uztailaren 23an, eserlekuak kenduko dituzte eta zoruko oholak jasotzen hasiko dira, berogailu sistema berria oholen azpitik joango da-eta.

ABUZTUAN BARRENA JARRIKO DITUZTE ALDAMIOAK

Abuztuaren lehenengotan aldamiok jartzeari ekingo diote, eta Xabier Azkoitia parrokoak adierazi duenez, hilabete osoa eman go dute lan horretan, "irailaren lehen konponketa eta egokitze lanei ekiteko". Aldamiok jartzen dituztenean, argi instalazio berria teiltatu azpira igoko dute, eta gangak zulatuz, erlaitzera eta zutabeetako mentsuletara eramango dute argindarra. Hor, argizatze berria ere jarriko dute, eta baita megafonia sistema berria ere. Horrez gain, aldamiok jarrita daudela aprobeztatuz, ganga azpiak begiratu dituzte, nerbioak garbitu, korua, zutabeak eta eliz barruko hormak konpondu eta baita azken horiek pintatu ere.

Lan horiek guztiak egiteko parrokia hirutan banatuko dute. Lehenengo eskumako aldean jarriko dituzte aldamiok. Lanak bukatu ondoren aldamiok kendu, eta erdiko zatian jarriko dituzte, eta horrekin amaitu ondoren ezker aldeko zatiari ekingo diote. Gutxi gorabehera martxora arte iraungo dute lan horiek.

Hori horrela, parrokiak itxita dirauen bitartean, hiletak San



ARTIBOA

Uztailaren 22an itxiko dute eliza; bien bitartean, hileta elizkizunak San Pedron izango dira eta meza, Sierbetako kaperan.

<p><i>Sakristau etxeko pareta konpontzen hasi dira eta margolanak ere kendu egin dituzte</i></p>	<p><i>Uztailaren 22an itxiko dute parrokia eta abuztuaren barrena aldamiok jarriko dituzte</i></p>	<p><i>Parrokia barruko lanak irailaren lehen hasiko dituzte, aldamiok jarri ondoren</i></p>
--	--	---

Pedro parrokiaren izango dira, eta meza, Sierbetako kaperan.

Bestalde, lanak zein fasetan banatuko diren eta nola egingo

dituzten azaltzeko erakusketa dago ikusgai parrokiaren interes duen edonor hurbil daiteke bertara, 09:00etatik 19:00etara.

SANTA MARINAKO JAIAK

Datorren astean Santa marinako jaiak izango dira. Uztailaren 17an hasiko dira etxafuego jaurtiketa

eta kanpai hotsarekin. Uztailaren 18an, Santa Marina eguna, 10:30ean erretiratuendako XIV. ibilaldi neurtua izango da eta 19:00etan meza, Korporazioarekin. Gero, Aritzeta Abesbatzaren emanaldia egingo da.

Egubakoitzean jarraitu egingo dute jaiek. San Joxepen hainbat kirol ekitaldi egingo da, eta zapatuan, 16:00etan, Santamarina txirringularitza saria. Domekan, 12:30ean, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Udal Pilotalekuan.

Koadroak eta erretaulak ere zaharberrituko dituzte


Restauraciones Siglo XXI SL enpresa arduratuko da Santa Marina parrokiako arte lanak zaharberritzeko: hainbat margolan, erretaulak eta erretaulako irudiez hain justu ere.

Dagoeneko jaitzi dituzte parrokiako ia koadro guztiak paretetatik eta ondo bildu ondoren sakristau etxean daude gordeta. Lanik gehien emango daude koadroa, dena den, Santa Marinaren martirioa irudikatzen duena da. Oraindik ez dute jaitzi, datorren martitzenean jaitziko dute. Duen tamaina handia kontuan hartuta, pasa den astean mihisea gogortzeko xafla batzuk jarri zizkioten garabi baten laguntzarekin jaisten dutenean apurtu ez dadin. Koadroaren dimentsioak eta balio artistikoa kontuan izanda, ez dute parrokiatik aterako zaharberritzeko. Koroaren azpian

lekua egokituko dute bertan gordetzeko eta zaharberritze lanak ere hor egiteko.

Gainerako margolan txikiagoen kasuan, sakristau etxean daude gordeta eta oraindik ere ez dute erabaki Restauraciones Siglo XXI SL enpresak zaharberrituko dituen.

Eusebio Corcuera zaharberritzailearen esanetan, Santa Marina parrokiako margolanetako batzuk balio handikoak dira, nahiz eta denetarik dagoen. Sinatutako lanen artean Mateo Cerezoren *Burgosko Kristoa* aipatu du. Hala ere, badira Santa Marinako lanen artean beste batzuk arte eta historia liburuetan autore ezagunei egozten zaizkienak, baina zaharberritu arte autoretza ziurtatu ezingo direnak Eusebio Corcueraaren esanetan.



Margolan handiena jaitzeko gogortu egin dute. M.B.



Bai Euskal Herriari taldeak otsailean ekin zion sinadura bilketa kanpainari eta bi hilabeteen 1.500 lagunek sinatu zuten.

EHNA/ Agiria Udalak tramitatzeko ahaleginean ari da Bai Euskal Herriari taldea

EHNA tramitatzeko aukera izango dugu laster herrian

MONIKA BELASTEGI

Bergarako Bai Euskal Herriari taldea Udalak Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) tramitatzeko ahaleginean ari da. Dagoeneko batu da Udaleko alderdi politikoekin euren asmoen berri emateko. Taldearen nahia da irailean tramitazioekin hastea.

Bide luzea egin du Bai Euskal Herriari taldeak Bergaran EHNA tramitatzeko ahaleginean. Iaz eratu zuten taldea, eta ordutik hona, bi urrats nagusi eman dituzte: batetik, herriko talde, elkarte eta hainbat banakoren atxikimendua lortzeko lanean jardun

zuten, eta hainbat esparrutako atxikipenak lortu zituzten.

Horren ondoren, sinadura bilketa kanpainari ekin zioten otsailean, eta bi hilabete eta erdiko kanpaina horretan 1.500 herritar inguruk adierazi zuten Bergarako Udalak EHNA tramitatzeko zuten nahia.

Atxikipenak eta sinadurak esku artean dituztela, Udaleko alderdi politikoei hurreratu dira egunotan euskal nortasun agiria Udalak tramitatzeko. Udal ordezkariekin izan duten batzar horietan Miguel Altuna Institutuko zuzendari ohi Jose Mari Larrañaga izan dute lagun Bai Euskal Herriari taldeko kideek.

BERGARAN IRAILEAN, SEGURUENIK

Alderdi politikoekin izandako bileren ondoren, balorazio positiboa egin dute Bai Euskal Herriari taldekoek. Ondorioz, posible da Udala arduratzea EHNA tramitatzeko. Hala ere, ez dute behin betiko erabakirik hartu. Horretarako, Udalbiltzak prestatutako mozioa aurkeztuko du Bai Euskal Herriari taldeak osoko bilkuran. Mozioak aurrera egiten badu, Udala arduratuko da EHNA egiteaz. Abuztu aurretik eraman nahi dute gaia osoko bilkurara.

Osoko bilkurak mozioa onartzen ez badu, Bai Euskal Herriari arduratuko da EHNA tramitatzeko horretarako prestatuko duten bulego baten.

Gaztetxea birgaitzeko proiektua onartu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Asteleheneko osoko bilkuran gaztetxea birgaitzeko proiektua onartu zuen Udalbiltzak; baita lanak esleitzeko baldintzak ere. EAJ-EA, Batasuna eta PSE-EE alderdien oniritziarekin onartu zuten.

Gaztetxearen proiektuak bi zati ditu, joan den astean aurreratu genuen moduan. Bata, kartzela zaharrari dagokio, hau da, ekitaldiarako gune izango denari; bestea, berriz, kartzelariaren etxeari, taberna eta erabilera askotariko gelak izango dituen.

Oro har, birgaitze lanen ondoren antzeko itxura izango du gaztetxeak. Kartzela zaharrari dagokion zatia ekitaldiarako gune gisa erabiliko dute eta ziegak, berriz, erabilera askotariko txoko bihurtuko dira. Komunak ken-

du egingo dituzte eta berogailu sistema berria jarri.


Kartzelariaren etxeko behe solairuan tabernak jarraituko du, eta komunak egingo dituzte. Kartzelariaren etxeko lehen solairuan komun gehiago eta erabilera askotariko gelak jasotzen dituzte proiektuak; ganbaran, berriz, Txapa Irratia.

TXAPA IRRATIA LEHEN SOLAIRURA

Hala ere, gerta liteke Txapa Irratia lehen solairuan kokatzea. Arrazoia da igogailua ganbaraino heltzeko teitatu baino gorago geratuko litzatekeen plataforma bat egin beharko lukeela. Eta kontuan hartuta ondare kalifikatutako eraikina dela, hori aldatu egingo du Udalak, seguruenik. Horretarako, Txapa lehen solairuan jartzea proposatu dute, eta hala, igogailua ganbararaino heltzea ekidituko dute.



Gerta liteke Txapa Irratia lehen solairuan jartzea ganbaran jarri beharrean.



Azterketa geoteknikoa Iralan

Astean barrena langileak ikusi ditugu Domingo Irala kaleko hainbat tokitan lurreen zuloa egiten.

Azterketa geoteknikoa egiten ari dira, lur azpia aztertzen, hain zuzen ere. Irala kalea urbanizatu eta azpian aparkalekuak egiteko proiektuarekin lotuta dago azterketa hori. Lur azpiko aparkalekuak egiten hasi baino lehen egin beharreko lana.

Ikerlur SL enpresa ari da azterlan geoteknikoa egiten, eta aurrekontua 9.550 euro ingurukoa da.

LABUR

Bergarako webgune berria egingo du Goienak

Debagoieneko herri gehienek, Bergarakoak barne webgunea berritu egingo dute, eta ez dutenek, aldiz, berria izango dute. Horretarako dirulaguntzak eman ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta kostuaren %50 eta %75 artean jaso ahal izango dute Udalek.

Udaletan sortutako informazioa herritarrengana hurbiltzea dute helburu webguneek, besteak beste lanpostuetako deialdiak eta osoko bilkuretako aktak. Goienak egingo ditu webguneak.

ELKARRIZKETA

LUIS MARI AGIRRE/'NARBAIZA BOLU' BASERRIKOA

"Meteorologoei zaila egiten zaie Kantauri alde honetako eguraldia iragartzea"

MONIKA BELASTEGI

BERRIGARAko eguraldi aditu partikularra dugu Luis Mari Agirre. Hark ematen dizkigu astero-astero tenperatura altu eta baxuek eta egindako euri kopurua. Ez du eguratsik igartzen, baina eguraldia du zaletasunetako bat.

Eguraldi kontuak asko gustatzen zaizkizu. Tenperaturaren eta euriaren berri-mailea zaitugu BERRIGARA. Zenbat denbora darazazu horrelako kontuetan?

1983ko martxoan hasi nintzen. Ur araztegi zentroan egiten nuen lan, Udaleko deposituan. Orduan pentsatu nuen interesgarria izango zitzaigula euria neurtzea. Arduradunari esan nion ondo egongo litzatekeela euria neurtzeko gailua izatea. Donostiako Meteorologia Zentroan onartu egin zuten gure eskaria eta euri eta tenperatura neurgailuak bidali zizkiguten. **Zaletasuna, hortaz, orduetik datorkizu?**


Nire lanbiderako interesgarria zen euri kopurua jakitea, baina horrez gain, estatistikak beti gustatu izan zaizkit. Eta horrela, eguneroko tenperaturak eta euri kopuruak hartu eta apuntatzen hasi nintzen.

Eguraldia iragartzeko kontuetan ere aritzen zara?

Ez. Beste batzuk ibiltzen dira horretan, eta badakit zelako iragarpenak izaten diren batzuetan. Nik nahiago dut pasatu ondoren zelako eguraldia egin duen esatea.

Meteorologoei asmatzen dute eguraldiarekin?

Baietz uste dut. Tresna ugari dago gaur egun horrelakoetarako: satellite bidez fronteak nondik datozen jakiten dute, eta, noizean behin desbideratzeren bat gertatzen den arren, orokorrean asmatzen dutela esango nuke.



MONIKA BELASTEGI

"Meteorologoei normalean asmatzen dute, inoiz akatsak egiten dituzten arren"

Zein duzu eguraldi iragarle gustukoena, edo, zure iritziz, zein iragarlek asmatzen du gehien?

Normalean toki bakar batetik datoz datu guztiak, berez guztiek

"Nik neuk ez dut tenpora kontuetan sinesten; sorginkeria kontuak ote diren nago"

egiten dituzte iragarpen antzekoak. Baina meteorologoei gure alde hau zaila egiten zaie.

ETBn hobeto iragartzen dute Euskal Herriko eguraldia beste kate batzuetan baino, nahiz eta

"1988. urteko uholdeak latzenetakoak izan ziren; bi orduan 137 litro bota zuen"

akats txiki batzuk egiten dituzten. Kantauri alde nahiko zaila da iragarpenetarako. Gertatzen da Estatu osoan eguraldi oso ona egitea eta hemen txarra, baita aldrebes ere.

Zaila da, hortaz, nahiz eta zientziak asko aurreratu, hurrengo egunetako eguraldia igartzea.

Biharamunekoa ez da hain zaila, ikusi egiten dute-eta frontea Galizia aldera hurbiltzen ari dela, esaterako. Baina aste osoko iragarpena egitea zaila da.

Eta tenporak fidagarriak dira?

Nik sorginkeriak ote diren ere pentsatzen dut: hiru egunean zer eguraldi egin duen, gauean zein haize geratu den... Ni neuk ez naiz *tenporazalea*, eta zientzialariek ere ez diote sinesgarritasun handirik ematen. Aita Zabalari ez zaio, akaso, asko gustatuko nik esandakoa, baina nik ez diet tenporei kasu handiegirik egiten. Gainera, tenporen aldeko eta kontrako iritziak oso markatuta daude. Hor ere *tenporistak* eta *tenporista kontrakoak* ditugu.

Hemen garrantzi handia ematen diogu eguraldiari.

Bai, euri asko egiten duelako izan daiteke. Eta beti eguraldi onaren zain gaudelako.

Oroitzen zara bereziki urteren batez hotz, bero edo euri handia egin duelako?

Bai. Euri handia egin zuen 1983ko abuztuaren 25ean. Uholdeak izan ziren orduan. Donostian 24an izan zen, hemen 25ean eta Bilbon 26an. Hiru edo lau egunean barrena izugarritzko euria egin zuen. 1988an beste uholde bat izan zen, aurrekoa baino handiagoa. Hura leku puntualetan izan zen, eta Bergaran tokatu zitzaigun; bi orduan 137 litro bota zituen. Arratsaldeko seieta erreka normal zihuan eta zortziak laurden gutxiagorako zubi gainetik zihuan ura.

Hotzari dagokionez, azkeneko hotz handia 85ean egin zuen. 10 gradu zero azpitik egon ginen. Eta joan den urteko abenduaren 26an ere 10 zero azpitik egon ginen. Eta azkeneko elurte handiena ere 85ean izan zen.

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE
AROTZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24


ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



ZEBRABIDEA SAN MARTIN PLAZAN

San Martin plazan, Errege Seminarioaren sarrera parean, zebraidea ipini dute. Leku nahiko berezia dirudi zebraidea ipintzeko, baina oinezko ugari erabiltzen duten gunea da, batez ere, Aranzadi Ikastolarako eta UNEDerako sarrera-irteera dela kontuan hartzen badugu. Gidari ugari uzten zuten autoa hantxe eta eragotzi egiten zuten oinezkoen bidea.





MUTIL EDERRENA, BERGARARRA

Endika Ibarra bergararra Estatuko aurpegi ederrena da. Halaxe erabaki du, behintzat, Madril en egindako XXI. Menderako Modeloak, Aurpegi Ederrena lehiaketako epaimahaiak. Hogeita hiru urte ditu Endikak eta lanbidez dekoratzailea den arren, modelo lanak ere egin izan ditu. First Models agentziarekin ari da lanean, eta irailean Jordaniara joango da erreportaje bat egiteko. (Datorren astean Bergara aldean izango da).

BEDEINKATU DUT AUTOA, BADA EZPADA

San Kristobal eguna izan zen eguaztenean, eta, ohiturari jarraituz, autoak bedeinkatu zituzten San Kristobal auzoan. 12:00etan meza izan zen, eta mezaren ondoren bedeinkatu zituen autoak Fidel Eizagirre abadeak. Ez ziren, gainera, gutxi izan autoa bedeinkatzera eraman zutenak. Irudian ikus daitekeen moduan, gero eta ikusmin handiagoa sortzen du San Kristobal auzoak, GOITBkoak ere han izan ziren autoak bedeinkatzeko unean, eta abadearen errezoak ere jaso zituzten. Bedeinkapenaren ondoren, Haritz eta Enaitz trikitilariak alaitutako erromeria egon zen, eta gauean, berriz, Gardoki trikitilariak alaitutakoa. Asteburuan jarraitu egingo dute jaiek eta hainbat ekitaldi egongo dira.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...
Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala
Matxiategi, 4
943 76 37 53



BERGARARRAK MUNDUAN

TXEMA MUÑOZ

35 URTE / ARGAZKILARIA / BARTZELONA

“Katalanek, orokorrean, oso ondo hartzen gaituzte euskaldunok”

EDU MENDIBIL

O rain dela zortzi urte-tik Bartzelonan bizi da Txema. Aurretik, 1989an, argazkilari-tza eta bideo ikasketak egin zituen Bartzelonan bertan eta hara itzultzeko gogoia zeukan ordutik: “Hasiëratik asko gustatu zitzaidan Bartzelona. Hiru bat urte Gasteizen lanean eman ondoren, hona etortzea erabaki nuen, argazkilari moduan lanean hasteko asmotan, horrelako hiri batek aukera asko eskaintzen dizkizulako. Eta horretan dihardut. Lehenbizi hainbat profesionalen laguntzaile izan nintzen eta orain nire kontura nabil. Estilo ezberdineko lanak egiten ditut: lan industrialak, katalogoak, interiorismoko gauzak edo ezkontza erreportajeak”, diosku Txemak.

1998ko maiatzean Francinarenekin ezkondu zen eta bi

urteko alaba daukate, Mireia. Poble Nou auzoan bizi dira: “Bartzelona oso hiri kosmopolita da eta mundu osoko jendea aurki daiteke. Bestalde, hiri handia izan arren, estresa beste hiri batzuetan baino jasangarriagoa dela uste dut. Eta nik, behintzat, ez daukat

“Argazkilari lanetan hasteko asmoz etorri nintzen 1994an Bartzelonara”

inolako kezarik katalanekin. Primeran hartu naute hasieratik. Jende askok gaizki berba egiten du katalanengatik: hizkuntzarekin oso itxiak direla, diruzaleak direla..., eta beste hainbat topiko. Errealitatea bestelakoa da eta uste baino hobeto moldatu naiz hemengo bizimodura. Katalanek, orokorrean, oso ondo hartzen gaituzte euskaldunok”.

Bergarara hiruzpalau aldiz etortzen da urtean barrena: “Familia eta lagunak han daukat eta logikoa da faltan sumatzea. Norberaren jaioterriarekiko lotura oso berezia da eta Euskal Herrira eskapatatxo bat egiteko gogoz egoten naiz. Abuztuan joateko asmoa daukagu, egun batzuk pasatzera. Bestela, aste bukaera askotan ere emaztearen herrira, Navas-era, joaten gara, lasaitasun bila”.



MINGAINARITIRAKA



Dorleta Mendibil

IRAKASLIA

Arte Ederretako ikasketak egin zittuan Dorletak. 32 urte dauka eta bost urte daroia Aranzadi Ikastolan, hango ikasleiei Marrazketa Teknikua eta Plastikak erakusten.

Ze adiñetako ikasleiei emoten jatzu eskolak?

Hamabost eta hamazortzi urte bittartekuei; ume txikiei baiño gehiago, nahixago dot nagusituagueti emutia eskolak. Pazientzia be bihar izango da, ba, lan horretarako.

Gutziz biharrezkua da pazientzia. Irakasliok ondo bizi izateko famia daukazue.

Bai, egiza da ezin garela kejavu, baiña neuk beti esaten dot holako oporrak badauzkagu merezitta dauzkagulako izango dala.

Irakasle gogorra zara?

Ez dot uste; dana dala, ikasleiek esan biharko leukie hori.

Zela definituko ziñuke zeure burua? Alaia eta irekixa naiz; prontua be badaukat.

Zerk amorratzen zaittu?

Gezurrek.

Bestiengan ze da gehixen apreziatzen dozuna?

Zuzen jokatzia eta erantzutia erantzun bihar dabengan.

Denpora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Lagunekin urten, sukaldian ibilli...

Zein da zure espezialidadia?

Esparraguak saltsan. Gauza dultziak ez dakit egitten, ez jat gustatzen dultzia.

Asteburu baterako plan ideala?

Lagun kuadrilliak herritxoren baten pasatzia asteburua; trunkil egon eta parrandan egin leiken herritxoren baten.

Bukatzeko, amets bat?

Dauzkaten danak egiza bihurtzia.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Karlos Etxaniz

AUSTRALIA / 2001eko abuztua

Koinata Australian bizi denez, hari bisita egin eta Australia ezagutzeko asmoa geneukan emaztea eta biok. Australiako ekialdean egin genuen lehenbiziko parada, han bizi baita Rosa, Brisbanetik oso gertu, Surf Paradise izeneko herri turistikoan, Queensland eskualdean. Izenak dioen bezala, surflariendako toki ezin aproposagoak daude han. Hondartzak ikusgarriak dira benetan. Australiako hiri garrantzitsuenak kostaldean daude, eta Brisbanetik Sydneyra, hego-ekialdera jo genuen, abioiez. Australian hori da txarrena, leku batetik bestera joateko abioia hartu behar izatea. Sydney asko gustatu zitzaigun. Hiri modernoa da erabat eta Opera House bezalako eraikinak zoragarriak dira. Era berean, Amp Tower munduko altuenetakoa da eta hiriaren bista ederrak daude. Hiri handia izan arren, ez duzu arriskurik sumatzen inon, eta horrek ere nahiko harritu gintuen. Ildo horretan, australiarren izaera ere azpimarratzekoa da. Oso jatorrak dira, beti laguntzeko prest dauden horietakoak.




“Ayes Rocken izaten diren ilunabarrak ikusgarriak dira”

Australia barrualdean Ayes Rock famatua ikusteko aukera izan genuen. Aborigenendako sakratua da monolito erraldoi hori. Hango ilunabarrak ikusgarriak dira, harriak tonuz zela aldatzen duen sinestezina da. Australiako iparraldean, Darwinen, ur gazietako krokodiloak ikusi genituen, bost metro ingurukoak, munduan diren handienak eta arriskutsuenak ere bai. Natura aldetik sekulako aberastasuna duen herrialdea da Australia, denetik dago (kanguruak tartean, nola ez). Cairns-en, berriz, koralezko arrezifeak daude, ilargitik ikus ahal den izaki bakarra, 2.000 kilometro inguruko luzera dauka-eta. Fraiser Island ere bitxia da, areazko uharterik handiena baita.

“Natura aldetik oso aberatsa da, denetik dago Australian”

EDU MENDIBIL



Rosa eta Karmen ahizpak eta Karlos, Fraiser uhartean.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 lbargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa


Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

PIRAGUISMOA

Markel Agirre Espainiako kadete mailako txapelkun eta Iraitz Artola hirugarren

Beti-Bustiko ordezkariak bikain ibili ziren aste bukaeran Sort-en (Lleida) jokaturako Espainiako Txapelketan

EDU MENDIBIL

Markel Agirrek urrezko domina eta Iraitz Artolak brontzezkoa lortu zituzten aste bukaeran Sorten (Lleida) jokaturako Espainiako Txapelketan, kadete mailan. Eneko Iturrospe 9. sailkatu zen senior mailan eta Lierni Errasti 5.a izan zen juniorren artean.

Beti-Bustiko piraguistek lan bikaina egin zuten Espainiako Txapelketan. Iñaki Gallastegi Beti-Bustiko ordezkariak azpimarratu duenez, "lehenbiziko aldiz Estatu mailako urrezko domina bat eskuratu dugu, eta Lleidan lortutako emaitzek argi eta garbi uzten dute gure piraguistak gogor ari direla entrenatzen. Ilusioa eta kalitatea ez zaie falta eta guztiok oso pozik gaude lortutakoarekin".

Estatu osoko 185 piraguista inguru batu ziren Sorten jokaturako Espainiako Txapelketan. Txapelketa Noguera Pallaresa izeneko ibaian jokatu zen eta hori Beti-Bustikoen mesederako izan zela uste du Gallastegik: "Ibai natural baten jokatzeko oso txapelketa irekia izan zen aurtengoa. Seo d'Urgelleko jaitziera artifizialean baino hobeto



Markel Agirre (erdian) eta Iraitz Artola (eskuman) gazteak podiumera igo ziren Espainiako Txapelketan.

to moldatzen dira gure piraguista Noguera Pallaresa moduko ibai baten, eta horrela erakutsi zuten aste bukaeran".

LAU PIRAGUISTA, BI DOMINA

Ur bizietako eslalom proban Markel Agirre bere kategoriako onena izan genuen zapatuko sailka-

tze probetan eta Iraitz Artola bigarrena izan zen. Azkenean, domekako probaren emaitzak kontuan izanik, Markelek urrezko domi-

na eskuratu zuen eta Iraitz Artola hirugarren sailkatu zen, brontzezko domina lortu zuen.

Eneko Iturrospe, berriz, 14. tokian geratu zen sailkatze probetan eta domekan proba ona egin zuen, eta sailkapenean gora egin zuen. Azkenean, senior mailako artean 9. postua lortu zuen. Lierni Errastik, azkenik, ez zuen zorterik izan sailkatze probetan: lau onenek jokatu zuten finala, eta Lierni 5. postuarekin konformatu behar izan zen.

Beti-Busti taldekoak pozik itzuli ziren Lleidatik, izandako esperientziagatik eta lortutako emaitzengatik. Antolaketa ere ona izan zen aste bukaeran, Gallastegiren ustez.

AGIRRE ETA ARTOLA SEO D'URGELLERA

Markel Agirrek (16 urte) Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi ditu aurtun. Denboraldi biribila izan da Markelendako. Iraitz Artolak (15 urte) ere emaitza bikainak lortu ditu: Euskadiko Txapelketan bigarren eta Espainiakoan hirugarrena izan da. Biak hala biak uztailaren erdialdean Seo d'Urgellera joango dira, euren mailako Estatu osoko piraguista onenekin batera entrenatzera. Biek ere zeresana emango dute etorkizunean.

Bergarako hiru lagun izan ziren Aizkorriko Maratoian

E.M.

Joxe Balentziagak, Jose Mari Urtzelaik eta Bixente Pagaldaik Aizkorriko Maratoia bukatzea lortu zuten domekan. Pagaldairen hitzetan, "errepidean 80 kilometro egitea bezala izan zen, oso proba gogorra".

Aizkorriko Maratoiaren lehenbiziko ekitaldian 220 partaide izan ziren, horietatik, sei emakume. Proba 09:00etan hasi zen, Zegaman; Aizkorriara igo ondoren, Zegaman bertan amaitu zen maratoia. Irabazlea Juan Martin Tolosa amezketarra izan zen, lau ordu eta 14 minutuko denborarekin.

Joxek (43 urte), Jose Marik (51) eta Bixentek (54 urte) badute esperientzia maratoiak korritzen. Bixentek 36 maratoi bukatu ditu dagoeneko. Haren ustez, "inguruan egon den lasterketa gogorrena izan zen domekakoa. Maratoi samurrik ez dago, baina Aizkorrikoan sufritu dut gehien. Andraiztik gora bultzaka eraman ninduen jendeak, txirrindularien antzera. Gero Coca-Cola bat hartu eta azken partean hobeto ibili nintzen".

Jose Marik duela 16 urte egin zuen azken maratoia. Duela hiru hilabete hasi zen Aizkorriko Maratoia gertatzen. Uste baino hobeto ibili zen: "Aizkorriara igo

eta ondorengo zatia egin zitzaidan gogorren, karranpak (kalan-break) izan nituen-eta. Baina gustura sufritzen da halakoetan. Ikaragarriko giroa zegoen, ikusle mordoak zeuden eta eguraldiarekin ere zorzea izan genuen. Sufrimenduz aparte, gustura ibili ginen", diosku umorez.

PAGALDAIK MARKA ONENA

Halakoetan lortutako denbora ez da inportanteena izaten. Edozelan ere, hiruretatik Bixentek egin zuen marka onena (sei ordu); haren ondoren, Joxe iritsi zen (sei ordu eta hogeita hamar minutu); eta, azkenik, Jose Mari (zazpi ordu eta lau minutu).



Argazkian, Jose Mari Urtzelai Urbia inguruan, domekako proban.

Hona hemen Merkealdiak

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA



Altos Pornos taldeak (argazkian) 2-1 irabazi zion astelehenean Osintxuri final-laurdenetako kanporaketan.

FUTBOLA

Altos Pornos-Gore eta A Ze Flaxa-Mongatxurrak finalerdietan

Ipintzako txapelketako finalak gaur, hilak 12, eta datorren egubakoitzean

E.M.

Astelehenean eta martitzenean Ipintzako nagusien Futbol Txapelketako finalerdiak jokatuko dira, 19:30ean. Irabazleen arteko finala egubakoitzean, hilaren 19an, izango da, ordu berean.

Ipintzako nagusien Futbol Txapelketan 22 talde izan dira lehian, eta oraingo astean jokatuko dira final-laurdenetako partiduak: astelehenean, Altos Pornosek 2-1 irabazi zion Osintxuri eta Gore taldea 3-1 nagusitu zitzaion Bil-durbarek Opel Lam taldeari. Martitzeneko kanporaketetan, berriz, Mongatxurrak taldeak finalerdietarako txartela lortu zuen Angizola menderatu ostean (3-2) eta A Ze Flaxak, berriz, Arloteak taldeari irabazi zion (5-1).

Gauzak horrela, finalerdiak honela geratu dira: astelehenean, Altos Pornos eta Gore izango dira aurrez aurre eta martitzenean,

Mongatxurrak eta A Ze Flaxa taldeek neurtuko dituzte indarrak. Finala egubakoitzean, hilaren 19an, izango da. Partidu guztiak 19:30ean jokatuko dira, Ipintzan.

BETERANOEN FINALA, EGUENEAN

Bestalde, beteranoen zazpinako futboloko finala ere datorren aste-

an izango da, eguenean. Atzo finalerdiak jokatzeak ziren. Finala, esan bezala, uztailaren 18an izango da, 19:30etik aurrera. Aurretik, 18:30ean, hirugarren eta laugarren postua erabakitze-ko partidua izango da. Zazpinako futboloko beteranoen txapelketan 8 taldek hartu dute parte.

Nesken finalak, gaur

Gaur, hilak 12, nesken txapelketako bi final jokatuko dira. Lehenbizi, kadete mailakoa izango da, Arloteak eta Elgeta taldeen artekoa, hain zuzen. Partidua 18:30ean hasiko da. Jarraian, senior mailako finala jokatuko dute Ogizun eta Potzu ta Zapaburuak taldeek. Finalerdietan Ogizunek uste baino errazago irabazi zion Arranori (6-0) eta Potzu ta Zapaburuak, aldiz, Arloteak kanporatu zuen (2-0). Txapelketan izan diren zortzi taldeetatik onenak direla erakutsi dute biek ere.

Infantil mailan, berriz, Soraluze A taldea izan genuen txapelduna, ekainaren 28an jokatutako finalean Soraluze B taldeari 5-2 irabazita.

Izquierdo-Hurtado bikotea fronteniseko txapeldun

E.M.

Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearrek zapatuan Angiozarren jokatutako Frontenis Txapelketa irabazi zuten, finalean Patxi Vallejos eta Xabier Albusua bergarrei nagusituta (35-32).

Finalera iritsi ziren bikoteek ondo baino hobeto ezagutzen dute elkar. Behin baino gehiagotan neurtu dituzte indarrak Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako Frontenis Zirkuituan. Zapatuan Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokatutako partidua oso parekatua izan zen: 32nako berdinketa ere izan zen

markagailuan, baina azken hiru tantoak arrasatearrek egin zituzten jarraian. Asko sufritu eta gero, ozta-ozta lortu zuten garai-pena Izquierdok eta Hurtadok.

Bestalde, 3. postua eskuratzeko partiduan Carmelo Barcalak eta Alejo Garciak 35-29 irabazi zioten Unai Mendia-Josu Auzmendi Beasaingo bikoteari.

Zapatuko bi partiduen ostean lau bikoteek kirol materiala erosi ahal izateko txartelak eta kamisetak jaso zituzten sari gisa.

Maiatzaren hasiera ezker 17 bikote izan dira lehian Kirol Zerbitzuak antolatutako binakako Frontenis Txapelketan. Aurten-go hau txapelketaren V. aldia izan da.



Bikote finalistak Etxeberria zinegotziarekin eta Maximo Zangitu epailearekin.

Kirol Argazkien XII. Lehiaketa deitu du Bergarako udalak

E.M.

Begarako Udalak eta Kirol Zerbitzuak Kirol Argazkien XII. Lehiaketa deitu dute. Euskal Herriko edozein argazkizalek parte hartu ahal izango du eta zuri-beltzeko zein koloretako kategoriak bereiztuko dituzte. Kategoriak bakoitzean, gehienez, lau argazki onartuko dituzte partaide bakoitzeko eta, esan bezala, kirola izango da partaideek jorratu beharreko gaia. Lanak jasotzeko epea irailaren 25era arte

egongo da zabalik eta epaimahaiaren erabakia irailaren 27an jakinaraziko dute. Bi kategorietan sariak berdinak izango dira: 150 euro eta trofeoa irabazlearentako, bigarren saria 120 euro eta trofeoa, hirugarrena 90 euro eta trofeoa, eta Bergarako onenarentako 60 euro eta trofeoa.

Bestalde, aurkeztutako lan onenekin erakusketa egingo dute. Erakusketa hori kultura etxean (Errotalde jauregian) egongo da ikusgai, urriaren 3tik 13ra bitartean, hain zuzen ere.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BERGARAN
BULEGO BERRIA

KOROSI
INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

ARRI
Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.



Bergarako Orfeoiak (irudian), Gabero Abesbatzak eta Musika Eskolako Abesbatzak eta Soka Taldeak egingo dute emanaldia.

Orfeoia, Gabero Abesbatza eta Musika Eskolako Abesbatza eta Soka Taldea arituko dira

Txernobilgo umeen aldeko saioa Mariaren Lagundian

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Txernobilgo umeen aldeko kontzertua egingo dute herriko hainbat taldek Mariaren Lagundiko elizan. Bergarako Orfeoiak, Gabero Abesbatzak eta Musika Eskolako Soka Taldeak eta Abesbatzak hartuko dute parte.

Txernobilgo Lagunak gobernuz kanpoko erakundeak antolatu du kontzertua Bergarako Udalaren laguntzarekin eta parte hartuko

duten taldeen laguntzarekin. Helburua da, urtero, uztaila eta abuztua Euskal Herrian igarotzera etortzen diren Txernobilgo umeen joan-etorriko bidaia ordaintzeko laguntza jaso ahal izatea. Horretarako, bost euro kobratuko dute kontzertuko sarrera.

Bergarako lau taldek hartuko dute parte kontzertu horretan: Bergarako Orfeoiak, Gabero Abesbatzak eta Musika Eskolako Ganbara Taldeak eta Abesbatzak, hain justu ere. Emanaldia Mariaren Lagundiko elizan izango da, 20:00etan.

UZTAILAREN 19KO FOLKLORE JAIALDIRAKO SARRERAK SALGAI

Datorren egubakoitzean, uztailaren 19an, folklore jaialdia egongo da, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Xamatx dantza taldeak, Ourenseko Castro Floxo dantza taldeak eta Bulgariako Naiden Kirov dantza eta antzerki taldeak hartuko dute parte.

Sarrera aurrez erosi nahi duenarentako, dagoeneko salgai daude kultura etxean (10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara), Lazkano zapata dendan eta Kafe tabernan.



Aritzetairen saioa Santa Marinako jaietan

Datorren egunean, hilaren 17an, Santa Marina eguna izango da. Hori horrela, Santa Marinaran jaiak ospatuko dituzte eguenetik domekara. Eguenean, 10:30ean, erretiratuendako XIV. ibilaldi neurtua egongo da. 19:00ean, meza izango da Udal korporazioarekin, eta horren ondoren, Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du. /M.B.

Malcolm Scarpa eta taldea gaur, Espoloian

MONIKA BELASTEGI

Bigarren jazz emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango dugu gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espoloian. Malcolm Scarpa & The Hokum Ladies taldea izango dugu gaur bisitari.

Udako Gauak kultura egitaraua aurrera doa. Joan den egubakoitzean, Delicatessen taldearen saioa ikusteko aukera izan genuen. Eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, jende ugari hurbildu zen Espoloira. Gaur, egubakoitza, ordu eta leku berean, Malcolm Scarpa & The Hokum Ladies taldearekin gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren guztiek.


Hainbat estilo jorratzen dituen musikari ezaguna da Scarpa: *country*-a, bluesa, popa,... Hala eta guztiz ere, gra-

batutako disko guztietan jazzaren joera nabari da. Ez, baina, edozein jazz, *ragtime* eta 20-50eko hamarkadetakoa estiloek markatutakoa baizik. Horren gainean osatu du The Hokum Ladies Malcolm Scarpak.

Hirugarren jazz emanaldia Mario Fernandino Sextet taldeak egingo du. Hala ere, ez da egubakoitzean izango, aurrekoak bezala, zapatuan, hilaren 20an, baizik, Espoloian, 22:30ean.

ABUZTUKO FILM EMANALDIK

Abuztuko zinema emanaldiei eutsiz, hainbat aldaketa izan dira eskainiko dituzten filmei dagokienez. Guztiak eguenetan izango dira, 22:00etan, San Martin plazan. Honako hauek, hain justu ere: *Harry Potter* (gaztelaniaz), *Adarbakar txiki* (euskaraz), *Ocean's eleven* (gaztelaniaz), *Charlie & Louise* (euskaraz) eta *Parque Jurásico III* (gaztelaniaz).



Irudian Malcolm Scarpa musikaria.

KULTURAPILULAK

Herriko hiru artistaren marrazki erakusketa Nahikari tabernan hilabete bukaera arte

Garazi Olabarria, Iñaki Elkorobarrutia eta Ibon Pérez bergararrak erakusketa ireki dute Nahikari tabernan. Hirurak Marino Gonzálezek ikasleak dira eta hirurek ere marrazkiak jarri dituzte ikusgai. Erakusketa uztail amaiera arte egongo da ikusgai, taberna orduetan.

San Kristobal auzoko jaiek asteburuan jarraituko dute ekitaldi gehiagorekin

Eguaztenean, hilak 10, izan zen San Kristobal eguna. Ohiko auto bedeinkazioa eta meza izan ziren besteak beste. Asteburuan, baina aurrera egingo dute San Kristobalgo jaiek, zapatuan eta domekan, hain justu ere.

Bihar, zapatua, 23:00etan, Muxutruk taldearekin erromeria egongo da goizaldera arte. Domekan, 12:00etan, meza nagusia izango da San Kristobalgo ermitan, eta horren ondoren auzoko jubilatuekiko luntxa.

Azkenik, jaiei amaiera emateko, Haritz eta Enaitz trikitilariak emanaldia egingo dute animatzen den guztiek dantza egiteko aukera izan dezaten.

E, TXO!

GUREGAIK/ AUTOBUSAK GAUETAN

Gauetako autobusak, egubakoitzetan ere bai

AINTZANE IRIZAR

Iaz, urrian, jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak zapatu gauetako autobus zerbitzua, eta oso erantzun ona izan ei du. Orain, udari begira, garraio zerbitzua egubakoitzetan ere jarriko dute.


Aurrera begira, zapatu gauetako autobus zerbitzu bereziarekin jarraitzeko asmoa azaldu du Foru Aldundiak, orain arteko hilabete hauetan jende askok erabili duela zapatu gauetako autobus zerbitzua.

Udako hilabeteetan, baina, egubakoitz gauetan ere egongo da zerbitzu hori; uztailaren 5ean hasi ziren eta irailaren 13ra arte,

egubakoitz eta zapatu gauetan herri batetik bestera automobila hartu barik, autobusez joateko aukera izango dugu gazteok, baita ez hain gazteek ere. Gogoratu, 00:00etatik 06:00etara, 90 minutuero egongo direla autobusok.

Herriko festetan ere linea bakoitzak gutxienez bi gauetan eskainiko du zerbitzua. Guri dago-kigunez, irailaren 15ean Bergaran San Martin jaiak direnez, Eibar eta Eskoriatza lotzen dituen autobus zerbitzua egongo da. Urriaren 4an, berriz, Maritxu Kajoi festak direlako.

Bestalde, zerbitzu berezi hori erabiltzen dutenei, euren premien gaineko datuak lortzeko, galdeketa egingo zaizkie geltokietan eta autobusetan.



AINTZANE IRIZAR

Gauetan parrandan lasai ibiltzeko aukera ematen du gauetako autobus zerbitzuak.

LOTSABARIK/ Eneko Prat

“Oso traketsa naiz kiroleterako”

AINTZANE IRIZAR

Ez zaizkio kirolak gustatzen, ez ikusteko ezta praktikatzeko ere; izan ere, esan digunez, traketsa ei da. Dantzarako, baina, ondo mugitzen da; asko gustatzen zaio bai dantza egitea baita abestea ere.

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Mediku; ebakuntzak egiteak erakarri egiten ninduen txikitán.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Musikarekin lotutako zer-baitetan lanean eta hiri handiren baten bizi izaten; Bartzelonak,

esaterako, asko erakartzen nau.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Gehiago ikasteko eta kalera irteten naizenean oso berandu ez etxeratze.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat; egia esan, nahi dudana egiten dut beti. Ordua jartzen badidate ere, neuk pentsatutako orduan etxeratzen naiz.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Osasunari, familiari eta lagun-nei, batez ere.

• Zure bertute bat?

Nik uste dut mutil alaia naziela.

• Eta hutsune bat?

Oso traketsa naiz kirol guztietarako.

• Zerk amorratzen zaitu?

Pertsona batek jendearekiko izan dezakeen errespetu faltak amorratzen nau.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ezpainak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?


Fisikoari, lehenengo aurpegiari; baina, batez ere, izaerari ematen diot garrantzia.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Dantza egin; dena dela, ni nire erara ibiltzen naiz.



• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko laugarren maila • ZALETASUNAK: Abestea, dantza egitea eta lagunekin irtetzea • LIBURU BAT: “Harry Potter”, J.K. Rowling-ena • FILM BAT: ‘Scream’ • MUSIKA TALDEA: Fórmula Abierta • KIROL TALDEA: Ez zait kirola gustatzen

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



GOENA ETA JON ALVAREZ

ZAHARRENEXETIK



San Joxepeko lagunek oinez egin zuten Zarautz eta Zumaia arteko ibilbidea.

MARKOS LABAEN

San Joxepekoek kostaldera irteera egin zuten aurreko eguaztenean

EDU MENDIBIL

Aurtengo irteera egitarauarekin jarraituz, San Joxepeko lagunak Zarautzen eta Zumaian izan ziren aurreko eguaztenean, uztailearen 3an. Berrogeita hamabost lagunek hartu zuten parte kostaldera eginiko irteeran.

Goizeko zortzietan abiatu zen kostalderantz San Joxepeko lagun taldea. Eguraldia lagun izan zuten, eta Zarautzera heldutako

an, oinezko ibilbideari ekin zioten. Erretiratuak sasoi ezin hobean daudela erakutsi zuten, hiru ordu oinez eman zituzten-eta Zarautz eta Zumaia arteko ibilbidea betetzeko.

Zumaiara heldutakoan, herria bisitatzeko aukera izan zuten. Besteak beste, hango kaleak, kaia eta hondartza ikusi zituzten bazkalaurretik. Horren ondoren, Zumaia kiroldegian bazkaldu zuten guztiek elkarrekin, primerako giroan.

IKASTURTE BUKAERAKO IRTEERA

San Joxepe erretiratuen elkarteak ikasturte amaierako irteera iragarri du uztailearen 23rako. Ibilbidea honako hau izango da: Bermeo, Gaztelugatxeko Doniene, Bakio eta Plentzia. Irteera 09:00etan izango da eta bazkaria Bermeon egingo dute. Irteeran parte hartzeko interesa dutenek San Joxepen bertan eman dezakete izena uztailearen 16a baino lehen. Argibide gehiago, 943 76 30 09 telefono zenbakian.



Irteeran parte hartu zuen lagun talde bat Zumaia kai-muturrean.

MARKOS LABAEN



Erretiratuak Xabierko Gazteluan eta Gorlan

San Joxepekoen beste bi irteerarako argazkiak dituzue hauek. Ezkerrekoa Xabierko Gazteluan ateratakoa da; ekainaren 27an, Sos del Rey Católico, Leireko monasterioa eta Xabierko Gaztelua bisitatzera joan ziren 110 bat lagun. Primerako eguraldia izan zuten, eta bazkaria Zangotzako jatetxe baten egin zuten.

Beheko argazkian San Joxepeko mendizaleak agertzen dira. Karakatetik Gorlara oinez joan ziren ekainaren hasieran, eta sekulako euri jasa izan zuten Pol-Poletik Elosura. Horren ondoren, berotzeko-edo salda hartu eta Gorlan bazkaldu zuten.



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da 1946an sortu zuten Zubiaurreko elkarte honen izena?

SANTAMARINAKOALTXORRAK

Santa Marinaren martirioa


EUSEBIO CORCUERA (ZAHARBERRITZAILEA)

Ez dakigu nor den margolan horren egilea, nahiz eta Van Eyck pintorearena dela esan ohi den. Hala ere, ez dago hori baieztatzen duen agiririk. Badirudi XVII. mendekoa dela, sasoi hartan Europan nagusi zen flamenko estilokoa, hain zuzen ere. Margolanak Santa Marinaren martirioa irudikatzen du.

Atzerriko lan baten oinarrituta, Espainiako artista batek egindako modeloa izan daiteke, kopiak oso ohizkoak ziren-eta garai hartan. Edozelan ere, kalitate handiko lana da, eta gaur egun bost bat metroko altueran kokatuta badago ere, argi dago gertutik ikusteko egina dagoela.

Oso lan mamitsua da. Konposizio aldetik, esate baterako, pertsonaia asko ditu: Santa Marina biluzik ageri da gerritik gora (oso arraroa eliza lan baten), martirioa agintzen duen agintaria (tronuan ageri dena), esklaboak, aingeruak, zerua (tonu argiek santa argizatzen dute), txakurra... Bikain landutakoa da. Margolanak 5,80x4,10 metroko dimentsioak dauzka eta ez dakigu zelan heldu zen Santa Marina elizara.

XVII. mendeko lana da, bikaina, orduan nagusi zen flamenko estilokoa, hain zuzen



JUAN IDIGORAS

GALDEDEBALDE

1.

Zer egongo da jubilatuentzako Santa Marinako jaietan?

- A/ Ibilaldi neurtua.
- B/ Txokolatada.
- C/ Karaokea.

2.

Astebukaeran San Kristobal auzoko jaiak ospatuko dira. Noiz da San Kristobal eguna?

- A/ Uztailaren 10ean.
- B/ Uztailaren 14an.
- C/ Uztailaren 12an.

3.

Bergarako zein bikotek jokatu zuen frontenis txapelketako finala joan zen astean?

- A/ Izquierdo-Hurtado.
- B/ Barcala-García.
- C/ Vallejos-Albisua.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ENCARNA LASHERASendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Encarna! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Gaittao Barrengua (Garitano) / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Heineken garagardoa

33 cl.ko 12 lata (txapel bat opari)

5,88 €

978 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!




EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Pintatze lanak orokorrean

**Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01**



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BERGARA
June Alberdi
Uztailaren 18an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maider San Torcuato
Uztailaren 12an 6 urte.
Zorionak! Etxekoak;
batez ere, Amaia.



BERGARA
Ander Najera
Uztailaren 13an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maddi Mujika
Uztailaren 15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Telleria
Uztailaren 12an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Martin.



ELGETA
Aitzol Jimenez
Uztailaren 13an 22 urte.
Urte askotarako Aitzol!
Ama, Susana eta Olaia.



ELGETA
Leire Azkarragaurizar
Uztailaren 17an 9 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
eskolako lagunak.



ELGETA
Josu Mañarikua
Uztailaren 14an 5 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Isne Elkoro
Uztailaren 16an 4 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Nekane Alegria
Uztailaren 15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



BERGARA
Jon Ander Rodriguez
Uztailaren 15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



BERGARA
Saioa Unamuno
Uztailaren 14an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Amaia Arregi
Uztailaren 11n 5 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Barrenkalekoak.



BERGARA
Mari Karmen Lasheras
Uztailaren 16an urteak.
Zorionak! Ahizpa.



BERGARA
Gurutz Axpe
Uztailaren 13an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ELGETA
Garazi Ojanguren
Uztailaren 15ean 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

IRRINTZI

kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

Mujika

gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larranaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HONEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Eburne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Kruz Gallastegi 2, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 12a / 121. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Sagastiko etxebizitzetarako izena emateko epea zabalik abuztuan

AINTZANE IRIZAR

Ekaineko osoko bilkuran Egaralur hautatu zuten Antzuola Udala Etxegintzako bazkide izateko. Orain, beste urrats bat eman dute: aurreko asteko osoko bilkuran etxebizitza horietako bat erosi nahi dutenen zerrenda osatzeko oinarriak onartu zituzten.

Sagasti kaleko laugarren zenbakia izango du Antzuola Udala Etxegintzak egingo duen etxebizitza multzoak. Etxebizitza horietako bat erosi nahi dutenen zerrenda osatzeko eta erosi ahal izango dituztenak hautatzeko baldintza plegua onartu dute uztaileko osoko bilkuran. Gauzak horrela, abuztuan zabalduko dute izena emateko epea, eta irailaren 30era arte egongo da zabalik.

Etxeen prezioari dagokionez, 99.200 euro da, batez beste; garajearekin eta ganbararekin, berriz, 111.200 euro.

INFORMAZIOA ETXEZ ETXE BANATUKO DUTE

Herriko jaien ostean, informazio zabalak eskainiko dute Udaleko arduradunek, etxez etxe banatu-



Laster hasiko da Antzuola Udala Etxegintza hirugarren etxebizitza multzoa eraikitzen.

ko duten esku-orrien bitartez. Esku-orri horietan azalduko dute zer egin behar duten eta zein agiri aurkeztu behar dituzten eskatzaileek. Esan bezala, abuztu

hasieratik aurrera egongo da eskaerak egiteko aukera. Iraile-rako, berriz, aholkularitza zerbitzua kontratatuko du Udalak; eskatzaileei informazioa emate-

ko eta eskaerak egitea errazteko, batetik, eta bestetik, prozesua Udaletik kanpoko pertsonen aurrera eraman dezaten kontratatu dute zerbitzu hori.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramírez de Okariz • Irakaslea

Integrazioa

Antzuolan bertan etxe pila berri bat egiten ari dira eta denon ahotan dabil noiz aseko ote den etxebizitza merkatu hau. Dena dela, sumatzen da herrian industrializazio garaitik sumatzen ez zen fenomeno: kanpotarren etorrera. Jende gaztearena, batez ere. Baina bitxia ere bada gazte hauek ez datozela herriko industriak bultzatuta, herriko etxe merkeek bultzatuta baizik. Beraz, une honetan industria kopuruak ez du herri baten biztanleria baldintzatzen, etxebizitzaren salneurriak baizik.

Eta fenomeno berri honek sortuko al dio herriari integrazio

arazorik? Gaurkoa ikusi baino lehen, joan gaitezen oraindik ustez pendiente daukagun industrializazio garaiko integrazioa aztertzerara. 1950. eta 1960. hamarkadetan Espainiako zenbait herrialdetik etorritako seme-alaba askoren itzaropena bihurtu zen gure herria ere. Beraz, dagoeneko proiektio bat egiteko tarte bat dugunez, gai izan gaitezke esateko benetan etorkinen integrazio hori eman



"Kanpoko gazteria etxe merkeek bultzatuta dator"

den ala ez. Horretarako, herriko elkarte edo antolaketa desberdinetara jo besterik ez daukagula iruditzen zait esateko, salbuespenak errespetatuz, integrazioa nahiko pobrea izan dela. Etorkinen seme-alaba gehientsuenak herriko "giro"tik kanpo daudela. Are gehiago, eskola

mailan lortzen dena gero badirudi kalean galtzen dela.

Orain ere hartzaileak bihurtu gara, batez ere etxebi-

zitzak merkeago ditugulako. Dena dela, euren herrialdetik "ogi bila" etorri direnak ere badauzkagu gure artean.

Beraz, ikuspuntu soziologikotik, badugu kanpotar bikote gaztearen multzo bat eta beste bat atzerritarrena, biak ere herriarekin loturarik ez dutenak. Beraz, nola integratu jende guzti hau? Hori da herri bezala dugun erronka berria. Badugu erreferente historiko bat, duela 50 bat urteko etorkinekin gertatutakoa. Hauekin egindakoa (eta badakit ez dela berdina) izan dadila hausnarketarako abiapuntua.

LABUR

Azoka tokiz aldatzea eskatu dute saltzaileek

Duela hilabete batzuk, azoka udal pilotalekuan egitea eskatu zioten azokako saltzaileek Udalari; ezezko erantzuna jaso zuten, "frontoia ez delako horretarako toki egokia".

Orain, Zurrategin egiten duten azoka beste norabait aldatzea eskatu dute berriro; azoka frontoi aurreko ingurura aldatzeko aukera aztertzen dihardute udal arduradunek. Egubakoitzean egingo dute batzarra azokako saltzaileekin, egoera horri irtenbide egokiena topatu nahian.

Domekan meza eta bazkaria izango dute erretiratuek

Etzi, domekan, bazkaria egingo dute Antzuolako erretiratuek. Lehenengo, goizeko hamaika eta erdietan, meza izango dute parrokiaren. Bergarako San Joxepe abesbatzak abestuko du mezan, baita ondoren ere.

Bazkaria, berriz, 14:00etan izango dute. Aurten, udal pilotalekuan egingo dute urteroko bazkaria. Bazkalostean ez dute dantzarako aukerarik falta izango, erromeria izango dute-eta. Urtero moduan, herriko gizon eta emakume edadetuenak omenduko dituzte bazkarian: Modesta Gabi-londo eta Alejandro Telleria, hain justu.

Berdegunen mantentze lanen zerbitzua, esleitura

Tomas Larrañaga arduratuko da, orain arte moduan, herri-guneko berdeguneak zaindu eta txukuntzeaz. Horixe erabaki zuten joan den eguneko osoko bilkuran. Duela gutxi egin zuten zeregin hori esleitzeko deialdia; Tomas izan da deialdi horretara aurkeztu den bakarra, eta baldintza guztiak betetzen zituenez, hari adjudikatu diote zerbitzua.

KIROLA


Oraingo domekan jokatuko dute amateur mailako lasterketa

AINTZANE IRIZAR

Domeka goizean jokatuko da Iñaki Leteren oroimenezko X. txirrindulari lasterketa. Aiañtzi Peñak antolatzen du lasterketa hori eta aurtengoa LVII. Antzuola saria izango da. 09:30ean hasiko da, plazan, eta 12:40 aldera amaituko da, plazan bertan.

Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da domeka goizean Iñaki Leteren oroimenez jokatu den txirrindulari lasterketa. Amateur mailako lehen bi urteetako txirrindulariek parte hartuko dute lasterketan. Lehendakari Txapelketa jokatzeko dutenek, hain zuzen ere.

Aurreko urteetako antzerako ibilbidea prestatu dute antolatzaileek. 09:30ean hasiko da lasterketa, esan bezala, herriko plazan, eta Oñatira joango dira. Oñatitik Antzuolara itzuliko dira eta berriro egingo dute Oñatiko joan-etorria. Bigarren aldiz Antzuolara iristen direnean, aurrera jarraituko dute eta Des-kargako mendatea igoko dute.



Helmuga baino 15 kilometro lehenago Asentzioko mendatea igo beharko dute.

11:20 aldera pasatuko dira Des-karga gainetik. Handik Oñatira joango dira, Bergarara ondoren, eta Angiozartik, Asentzio igo eta

gero, helmugara abiatuko dira. Guztira, 125 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek.

OSOKO BILKURA

Bi mozio aztertu zituen Udalbatzarrak


AINTZANE IRIZAR

Aniztasunaren defentsan eta alderdi politikoen lege organikoaren aurrean, manifestua aurkeztu zuen Antzuolako EAJ alderdiak. Idatzi horretan adierazten dute, besteak beste, ideologia askatasunaren aurka egiten duela lege horrek eta ez dela demokratikoa. Horrela, lege hori "deuseztatzea" exijitzen dute eta gizarte anitz eta integratua eratzeko konpromisoa hartzea eskatzen diete legearen sustatzaileei. PSE-EEko zinegotzi Juan Benítezen abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoarekin onartu zuten manifestua.

Horren aurretik, baina, EAJ eta EA alderdiek aurkeztutako mozioa aztertu zuen Udalbatzarrak. Eztatanda luzea eragin zuen

idatzi horrek. Euskal Herritarrok alderdiak alkatetzan diharduela hiru urte bete direnean, udal gestioari kritika egiten diote EA eta EAJ alderdiek mozioan. Udal programak hutsune ugari dituela kritikatu eta geldidun gaiak zela bideratuko dituen azaltzeko eskatu zioten idatzi horretan alkateari. "Hiru urte hauetako egoera desorekatua saihesteko neurriak" har ditzala eskatzen diote, bestetik. Puntuz puntu, hainbat gairen gaineko hausnarketa egiten dute EAJ eta EAk, hala nola, industrialdea, Olaran etxea, gizarte etxea, igerilekuak...

Aldeko lau boto eta aurkako beste lau boto zituen mozio horrek. Bigarren bozketan, alkatearen kalitatezko botoarekin, atzera bota zuten mozioa.



Frontoi txikia nahi dute

Uda partean, eguraldi onarekin batera, herriko hainbat neska-mutiko frontoi txikian jolasten ibiltzen dira. Orain, baina, Sagasti eta Olaran inguruko urbanizazio lanak direla-eta, obretako gauzez beteta dago frontoi txiki hori.

Xabier Arantzeta eta Jon Iturbe sinadurak batzen ibili dira, Udalarari frontoia libre laga dezala eskatzeko. Ehunetik gora batu dituzte eta Udalarari aurkeztu dizkiote. Orain, Udalaren erantzunaren zain daude neska-mutikoak. /A.I.



Sanferminak ospatu zituzten

Uztailaren 1a ezkerro, egunero-egunero elkartzen dira herriko 80 bat ume Udalak antolatutako udaleku irekietan. Joan den egubakoitzean, uztailearen 5ean, sanferminak ospatu zituzten. Domekan San Fermin eguna zela-eta, Antzuolara ere jai hori ekarri nahi izan zuten. Ume guztiak zuri-gorri jantzi eta euren entzietan egin zuten. /A.I.

Bertan egotea bezala!

Antzuolako jaietako saio bereziak GOITBn

INFORMATIBOA ANTZUOLATIK

- Egubakoitza, uztaileak 19, 14:00etan
- Errepikapenak 15:30ean, 20:00ean eta 21:30ean

XELEBERRI

- Martitzena, uztaileak 23, 20:30ean
- Errepikapena eguaztenez, uztaileak 24, 14:15ean



Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko uztailaren 12a / 106. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com


Pintada egin dieten lokal berean jarraituko dute musikariek

OXEL EROSTARBE

Gai zerrendan ez agertu arren, eskola zaharretan entseatzen duen musika taldearen gainean jardun zuten martitzeneko Kultura batzordean. Inguruko bizilagunak kexatu egin dira udaletxean, musikariek desorduetan zarata handiegia egiten dutelako.

Duela aste bi, *Alde hemendik* zioen pintada agertu zen Ostiada oi! taldeak entseatzen duen lokaleko paretan. Duela lau urtetik hona dihardute han entseatzen. Lokala eman zieten taldeak ez zuen entseatzeko ordutegirik, nahi zuten egoten ziren han. Duela hiru urte ezker, berriz, ordutegia dute. Ostiada oi! taldekoek GOIBEKOKALeri adierazi diotenez, ordutegia betetzen dute beti eta inoiz ez dute entseatu gaueko bederatzietatik aurrera.

Bizilagunen batek, ordea, ez du gauza bera pentsatuko. Egin dieten pintadarekin argi gertzen da handik joatera gonbidatzen dituztela. Badirudi udal txean ere kexaren bat edo beste jaso dutela. Kexa horiek, baina, ahoz egin dituzte. Ostiada oi! tal-



Ostiada oi! taldeko zenbait kide, entseatzen duten lokalean egin dieten pintadaren parean.

dekoek astean pare bat egunean entseatzen dute, gehienetan asteburuetan. Taldekoek adierazi digutenez, eurek musika egiten dute eta norbaitek eurekin ara-

zoren bat badu, pintadak egiten ibiltzea baino gehiago, hobe izango luke eurekin zuzenean berba egitea. Udalarekin adostutako ordutegia bete ei dute beti.

Kultura batzordean aztertu eta gero, kexak egon direla esango diete taldekoei. Hala ere, ez dute taldea entsegu lokaletik kanporatzeko asmorik.

JENTREBISTAK/ Ze eritzi daukazu kalian ipiñitako lorontzixen gaiñian?



OSKAR ASKASIBAR
27 urte



MARI JOSE GOMEZKORTA
40 urte



JUAN MARI SARASUA
46 urte



GLORIA BARRERO
52 urte



FERNANDO OJANGUAN
43 urte

Zerbait egin bihar zala argi zeuan. Baiña ez dot uste lorontzixak ipintzia danik soluziñua. Nik neuk direkziño bakarria ipiñiko neuke.

Kamioiak balkoiak ez joteko bada, ondo etorritta. Hala eta be, ipiñitta daren moduan errezagua da kotxian zozazela lorontzixak jo edo zapaltzia.

Lorontzixak ipintzia soluziño eskasa dala pentsatzen dot. Balkoia librau arren, lorontzixa zapalduko leuke kamioiak eta kotxiendako trabia dirá.

Ez jata gaizki eta ez ondo pentsatzen. Kamioiak balkoiak jotia eragotziko daben arren, tarte txiki-xa dago eta lorontzixak zapalduko dittue.

Oso ondo pentsau jata lorontzixak jartzia, kamioiak balkoi danak jotzen dittue-eta. Lehenago jarri bihar leukie, baiña ia soluziñua diran.

LABUR

Goimendiko ermita ingurua konpondu dute auzolanean

Auzoko jaietarako ermitaren inguruan dauden eserlekuak konpondu eta ingurua txukunduko dute auzolanean. Auzokoek eserleku berriak lortu dituzte Eibarren, eta Udalak horiek ipintzeko materiala ordainduko du.

Eskolara joateko autobusa behar dutenen batzarra

Uztailaren 23an, 21:00etan, batzarra egingo dute udal txean Bergarako eskoletara joateko autobusa behar dutenek. Datorren ikasturtean autobusa zenbatek behar izango duten jakin gura dute.

IRAKURLIAREN TXOKUA

DENON ARTEAN EGINDAKO JAIAK

Aurten ere mota guztietako eta adin guztietako jendearentzako ekintzak antolatuko ditugu eta hori ez zen posible izango jaiak antolatzeko lagundu duten pertsona eta talde desberdinen partehartzea gabe, beraz eskerririk asko antolakuntzan jaien aurretik lagundu duten guztiei eta jaietan bertan egunero-egunero dena ondo irteko lana egin dutenei. Batzordetik esan datorren astean uztailak 17 asteazkena iluntzeko 21:00etan egingo dugula bilera jaien balorazioa egiteko, datorren urterako hobetu daitezkeen gauzak kontutan izateko eta 2002ko jaietara amaiera emateko.


Besterik gabe eskerrak berriz ere partikular eta talde guztiei eta datorren urteko jaiak antolatzen ikusiko garelakoan ondo pasa uda

JAI BATZORDEA

AIPAGARRI

Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza Euskal Herriko dantzari onenen artian

O.E.
Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza elgetarren ibilbidia dantzan oin dala bederatzirte hasi zan, lau urtekin. Bederatzirteren ostian, ointxe hasi dira honetan urtiotan egindako esfortzua-ren emaitzak jasotzen. Elgetarrak onenen artian dare.



Irabaztiak batera, ondo pasau eta lagun ugari egin dittue Hiartek eta Andonik.

JORGE BOLINAGA

Gaztien maillan Euskal Herriko hiru bikote onenen artian dare Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza. Eta hori ez dogu esaten elgetarrak diralako. Izan be, honek bikotiek azkenengo urtian lortutako emaitzak ezin hobiak dira.

Lau urte zittuenian hasi ziran Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza Bergarako Moises Azpiazu taldean. Orduetik hona, Dani Azpiazu izan da euren maisua. Plazara urten aurretik, bi urtian entsaiatzen jardun zeben. Gero etorri ziran txapelketak eta Euskal Herriko plaza gehixenetara bisittak. Eta bederatzirteko ibilbidia bete dabenian, honetan urtiotan ikasitako dana taulan erakutsi dabe. Ezin hobeto, gaiñera, aurten parte hartu daben txapelketa gehixenetan elgetarrak lehenengo hiru bikotien artian izan diralako.

Astero-astero hiru bidar jua-ten dira Andoni eta Hiart Bergarara. Hantxe ikasi dittue Fandango eta Arin-arin dantzen nun-

dik norakuak. Gaztien maillan beste urtebete geratzen jakue ondiokan. Beste urtebete, gustora egitten dabenakin disfrutatu eta onenen artian izateko.

Izan be, honetan urtiotan dana ez da izan lehenengo edo azkenengo amaitzia, perfektu egin edo akatsen bat edo beste egittia. Dantzak herri asko bisitatzeko eta

Aurten parte hartu daben txapelketa gehixenetan lehenengo hiruren artian amaittu dabe

Erakustaldi bikaiña egiñaz Iruneko Txapelketan lehenengo geratu ziran elgetarrak

Gaztien maillan beste urtebete geratzen jakue, ondo pasauaz onenen artian egoteko urtia

bazteko modua badago, ezin hobeto. Gauzak kostautu lortzen dirala ikasi dabe Hiartek eta Andonik. Entsaiaziakin eta esfortzuakin lortzen dala onenen artian egonaz ondo pasatzia.

IRUNEO TXAPELKETAN LEHENENGO
Uztaillaren 1in, Bidasoa aldeko txapelketa jokatu zan Irunen. Bertan, erakustaldi bikaiña egiñaz, lehenengo amaittu zeben Hiartek eta Andonik. Beste txapelketa batzuetan be irabazteko zorixan izan dira elgetarrak. Lazkaon eta Urnietan hirugarrenak izan ziran. Bergaran jokaturako Euskadiko Txapelketan, barriz, laugarrenak izan ziran.

Elgetako bikotiaz gain, Hernaniko, Lezoko, Oreretako, Azpeitiko, Azkoitiko, Billabonako, Olabarriako eta Bergarako bikotiak ibilliko dira udan plazaz plaza. Hiartek eta Andonik, behintzat, abuztua amaittu arte aste bukaerero erakustaldixak egitten jardungo dabe. Datorren aste bukaeria be garrantzitsua izango da: zapatuan, Oreretako Dantzari Egunion izango dira eta domekan, Txintxerpen, hantxe jokaturako eta Gipuzkoako Txapelketia.

Beste urtebete geratzen jakue Hiarteri eta Andoniri gaztien maillan. Ondo pasatziak batera, honetan urtiotan egindako esfortzuar probetxua etaratzeko aukeria dauke. Hala izan deilla, Elgetako bikotia oso ondo egitten dabillen seiñale izango da-eta.

lagun mordua egitteko aukeria emon dotse Hiarteri eta Andoniri. Eta hori da benetan aberasgarria. Gaiñera, aurrenekuen artian egon eta txapelketak ira-

ARETO FUTBOLA

Bihar jokaturako dira finalaurrekoak

O.E.
Azken txanpan sartu da Areto Futbol Txapelketa. Aurreko asteburuan, atzeratuta zituen partidu biak jokatu zituen Chievo taldeak. Partidu biak irabazteaz gain, finalaurrekoetarako sailkatzeko behar zituzten golak egin zituzten bergarrek. La Kokotxaren aurka 12-5 irabazi zuten eta MTSren aurka, 6-2.

Chievoz gain, Arineketan, Vicios eta Txapela izango dira finalaurrekoak jokaturako dituzten partiduak. Chieвок eta Txapelak puntu eta aldeko gol berberekin amaitu dute liga. Hamar puntu eta aldeko 52 gol zituzten talde biek, eta aurkako golek erabaki dute hirugarren postua. Txapelak 33 gol zituen aurka eta Chieвок, 35. Txapelak hirugarren amaitu du liga

eta finalaurrekoetan Viciosen aurka neurtuko ditu indarrak. Viciosekoak iazko txapeldunak dira, eta aurten elkarren aurka jokatu zutenean durangarrek irabazi zuten. Iaz, Viciosek eta Txapelak jokatu zuten finala, eta Txapelakoek garaipena izango dute helburu, aurtengo finalerako sailkatu eta iazkoaren mendekua hartzeko.

ARINEKETAN FAVORITOA
Finalaurrekoetako beste partidua Arineketan eta Chievo taldeek jokaturako dute. Arineketanek maila bikaina erakutsi du txapelketan eta finalerako sailkatzeko favoritua da.

Bihar, zapatua, 16:00etatik aurrera, areto futbola izango da nagusi kiroldegiko kantxan. Alboan ikus dezakezue sailkapena.

PARTIDUAK

16:00: Arineketan -Chievo

Vicios

17:00: Vicios-Txapela

Chievo

EMAITZAK

Chievo-La Kokotxa 12-5

Chievo-MTS 6-2

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	13	9
2. Vicios	13	9
3. Txapela	10	9
4. Chievo	10	9
5. Bar El Arco	10	9
6. Spias	8	9
7. Komando Piperrak	6	9
8. MTS	2	9
9. La Kokotxa	0	9

LABUR

Jone Muxika hirugarren izan zen, Tolosan, Euskadiko Mendi Bizikleta Txapelketan

Domekan, hirugarren postua merezimendu osoz lortu zuen elgetarrak. Denboraldi bikaina egiten ari da Jone, eta datorren domekan Bovedako lasterketarekin amaituko den Euskadiko Openean ere hirugarren postuan amaituko du, ziurrenik.

Uztaillaren 21ean Leonera joango da Jone, San Isidro herrian izango den Espainiako Txapelketan parte hartzera.

Mikel Elkoro eta Txaraka bikain ari dira Debagoieneko Pala Txapelketan

Debagoieneko Pala Txapelketa Elgetan Jokutzen ari da. Mikel Elkoro eta Txarakak osatzen duten bikoteak orain arte jokaturako partidu guztiak irabazi ditu. Zapatuan, 10:30etik aurrera, ligako azken partiduak jokaturako dituzte. Sailkapeneko lehenengo laurak finalaurrekoak jokaturako dituzte datorren astean.

Finalaurrekoetaraino iritsi dira Arantzeta eta Ajuria Añorgako Binakako Txapelketan

Txapelketa bikaina egin duten arren Arantzeta eta Ajuria ezin izan dira Añorgako txapelketako finalera heldu. Finalaurrekoetan 22-18 galdu zuten Mendizabalen eta Gurrutzagaren aurka. David Peñalverrek, bestalde, zapatuan jokaturako du Getariako Txapelketako kanporaketa.

ERRETRATUZAHARRA

San Martinen
omenezko
ospakizunak

San Martinen kanonizazioaren lehen mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi izan ziren Bergaran 1962. urtean. Orduko alkate Laskuráinek deituta, hainbat herritarrek batzorde bat osatu zuten eta ospakizun handiak egon ziren. Besteak beste, Simon Arrietak eta Fernando Azkargortak San Martinen omenez egindako oroitarria inauguratu zuten Zugarrako mendixkan, 1962ko irailaren 15ean.

Esan bezala, 1862an, Pio IX.a aita santuak Japoniako martiriak kanonizatzeke asmoa azaldu zuen, eta ekainaren 8an egin zituzten Anaia Martin eta gainerako martiriak santu.

Argazkiko lagun taldeak ere 1962ko ospakizunetan hartu zuen parte. Honako hauek agertzen dira Ozaetan ateratako argazkian, zutik: Jose Mari Agirre, Esther Arrondo eta Jose Mari Leturia; makurtuta, Juan Mari Blázquez eta Jose Ignacio Urtzelai.

Argazkia: Esther Arrondo.



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Matxiategi
eta Boni
Laskurain

Hogeita hamabi urte inguruko tartea dago bi argazkien artean. Ezkerrekoan kanposantua eta Matxiategiko etxeak (atzealdean) eta Boni Laskurain kalea ageri dira. Ordurako Ipintza Institutua (lehengo Batxilergo Institutua) eraikita zegoen, baita San Martin ikastetxea ere. Ipintza Institutuaren ondoko lursailean umeendako eskolak zeuden sasoi hartan.



≈1970

Gaur Miguel Altuna Institutua dagoen tokian umeendako eskola zegoen lehen (Bergara Udal Agiritegia, Roman Larrañaga fondoa).



2002

Matxiategi eta Boni Laskurain, gaur egun. Ipintza eta Miguel Altuna institutuak elkarren ondoran daude eta ingurua erabat aldatu da.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

**CLINICA DENTAL
BERGARA**

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-protesia
Estetika eta zuritzea
Implanteak eta kirurgia
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipres, Sanitas, Asisa, DKV/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred.

Bidekurutzeta 6, 2. pisua. Bergara. 943 76 05 77

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak



Bitartean, GOITB.

Uztailean, programazio berezia.

ASTELEHENETAN

- 20:30: Goienasport

MARTITZENETAN

- 20:30: Xeleberri jaietan

EGUAZTENETAN

- 20:30: Programa berezia

EGUENETAN

- 20:30: Iparrorratza


EGUBAKOITZETAN

- 20:30: Musika kontzertuak

Egunero

- 14:00 / 20:00 / 21:30: Berriak

Aukera hau galduko al duzu?



Opel Corsa
bat erosteagatik aire egokitua

doan

edo, nahiago baduzu, ekipamendu
bikaina duen Corsa bat izan dezakezu

7.480* € truke baino ez



Opel Astra

**Aire
egokitua**

eta ekipamendu bikaina

11.100** € truke baino ez

**「HIL BUKAERA」
「ARTE BAKARRIK」**

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora
eta gozatu, gainera, diesel autoen aukera onenez.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

*Fabrikatzaileak gomendaturiko SP Penintsulan eta Balearretan. Corsa Club 1.0, 3 p. Barnean sartzen dira zergak, garraioa, promozio beherapena eta preber plana. ** Fabrikatzaileak gomendaturiko SP Penintsulan eta Balearretan. Astra Club 1.6, 3 p. 84 cv. Barnean sartzen dira zergak, garraioa, promozio beherapena eta preber plana, berunezio gasolina ibilgailuetan. Argazkiko modelook ez dira eskaintzakoak.

Giauto

Olabarrena z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA
San Andres Auzoa 10D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE